

MAIDER MENDIZABAL ▶ PILOTARIA ETA GIPUZKOAKO FEDERAZIOKO TEKNIKARIA

«Irabazi beharreko partida dugu gure jokoia eginez gero»

ANOETA ▶ Arrondo bikotearekin I. Emakumea Pilotari Txapelketako finalerdia jokatuko du bihar

LIGAXKA ▶ «Orekatuagoa izan da maila aurten; giroa oso ona izan da jardunaldi», dio anoetarrak ▶ 6

VILLABONA ▶

Jesusen Bihotzak Kultur Astea antolatu du

Datorren astean hasita, askotariko ekitaldiak ▶ 6

TOLOSALDEA ▶



N. URBIZU

San Sebastian Eguna bihar eta etzi

Berastegi, Leaburu eta Orendainen egingo dute ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Espainiako Ingurumen ministroa, Ibiurren

2008an bukatzea aurreikusi dute ▶ 3



‘Kantu isila’ erakusketaren lan hautatua, Zabalarretan

TOLOSA ▶ Joan den udaz geroztik Tolosako paisaiaren parte izan dira; urte erdi luzearen ondoren, aste honetan kendu dituzte banan-banan Koldobika Jauregi eskulturgile alkizarrak 750. urteurrena zela-eta eginiko *Kantu isila* kale erakusketako eskulturak. Guztiak, bat izan ezik. «Herritarren iritzia, alderdi ekonomi-

koa eta egilearen iritzia» aintzat hartu dituzte lana aukeratzekoan. Kokapena, berriz, Zabalarreta parkea izan da. Atzo kendu zioten, hain zuzen, estalkia lanari Koldobika Jauregik —argazkian eta Jokin Bildarratz alkateak. Markinako harri beltzarekin egina dago pieza eta 145x290x4, zentimetroko neurria du. E. EZEIZA ▶ 2

KULTURA ▶

Kantu isilaren indarra

Atzo kendu zioten estalkia, behin betiko Tolosan geratuko den Koldobika Jauregiren eskulturari, herritarrek erabakita, Zabalarreta parkean ipini dute

ESTI EZEIZA

Zuberoako Altzuku herrian badira abesti batzuk, baina kantak ere deituak, non berezitasun bat duten. Abesti hauek ez dute letrarik, eta ahapetik kantatzen dira. Hegaztiekin dute zerikusia, eta altzukuarrak belaualdiz belaualdi kantatuz joan dira. Bestalde, hauek egiteko modua oso berezia da, eta honek Koldobika Jauregiren arreta deitu zuen hasieratik. Eskultoreen ohiko egituraketa hausten du honek. Hala, abesti hauen sortze prozesua oinarritzat hartuta, eskulturara pasatzea erabaki zuen eskultore alkizarrak. «Eskultura bat eraiki baina gidoirik gabe». Artistak herenegun emandako hitzaldian azaldu zuen bezala, «askotan abesten hasten garenean, kantatu beharrean, ahapetik abesten dugu, eta horren bidez, badakigu zer ari garen kantatzen, eta baita ingurukoek ere. Askotan letrak ez ditugu ulertzen baina ahapeko kantu horren bitartez normilzatu egiten dugu kantuaren forma». Oinarri bezala hau hartuaz, bere istorio pertsonala kontatu nahi izan du Koldobika Jauregik *kantu isila* lanarekin.

Eguneroko bizitzako elementuak hartuz, kaikuak, gurpilak, gurutzak... kantu bat baltz bezala, jolasten hasi zen Jauregi duela hiru urte. Askatasunez, haurren gisara, piezaz pieza osatzen joan da bere obra, puzzle baten moduan. Hala, bere esanetan, ikusi ahal izan du, sortze prozesu honek fruitu ona eman duela, «zazpi hilabetetako erakusketaren ondoren, ez baitira apurtu».

Materia, denbora, espazioa

Eskultoreek materia, denbora eta espazioaren terminoekin jokatzeko dute beraien lanetan. Artea normalean, hasi eta bukatu egiten dela uste dute. Gizakien eskuetan dagoela esaten da, eta gizakien sorkuntzan dagoela, eta edertasunaren gailurra dela. Baina egileentzat gailurra ez da artea bera, edertasuna da, eta hau artearen gainetik dago. Sortzailea beti edertasun horren barruan zerbait egin nahian ibiltzen da. Dena den, naturan edertasun hori toki askotan aurki daiteke. «Munduaren edertasun horretan dagoen zati txiki bat da ar-



Atzo goizean kendu zioten estalkia Jokin Bildarratzek eta Koldobika Jauregik eskulturari. E. EZEIZA

Zabalarreta parkea artearen etxe da hemendik aurrera

Atzo kendu zioten estalkia Koldobika Jauregik eta Jokin Bildarratzek behin betiko Tolosan geratuko den eskulturari. Tolosarren, erakusketaren babeslearen eta egilearen proposamenak kontuan hartuta *kantu isila* obrako IX eskulturara geratuko da Zabalarreta parkean. Alkizarraren esanetan, berarentzat aurkikuntza bat izan da parke hau, eta bere lana kokatzeko toki egokia dela uste du. «Eskulturaren prozedura deszentralizatzeke balio du, eta hausnarketarako leku egokia da». Bestalde, eskultura honekin Tolosaldeko



Jauregi hitzaldian. E. EZEIZA

herrien presentzia hirian geratuko da.

Markinako harri beltzarekin egina dago pieza, 145x290x40 zentimetroko neurria du. Eskultura aukeratzeko, herritarren gustuaz gain, alderdi eko-

nomikoa eta egilearen iritzia hartu da kontuan.

Zabalarreta parkean behin betiko geratuko den pieza sinbologiaz betea dago. Hasiera batean, udaletxe aurrean ipini zuten, egilearen ustetan toki aproposa baitzen. Atzealdean, estela edo eguzkilore bat izan litekeen zirkulu bat du. Eta honen erdian, tunel bat, edo komunikazio bide bat ageri da. Alkizarrak azaldu zuen bezala, «Nafarroako zubitik herrira sartzeko bidea adierazten du honek». Baina beste aldetik begiratu ezkerre, leiho bat da. Honek, ondoan bi gurutze

te». Hau kontuan hartuta, Koldobika Jauregik bere eskultoretan, harriaren beraren koloreak eta formak errespetatu ditu, bere horretan utzia. Alkizarraren aburuz, eskultura bera garrantzitsua bada ere, agian, beraiek bezain garrantzitsuak dira azpian dauden harriak. Alkizarrak bere obrarekin finkatuta dauden zenbait kontzeptu hautsi nahi izan ditu. «Munduan dauden gauza itxusiak eta ederrak, gauza berak dira, dena unitate bat da». Eskultorearen iritzi, «zer den polita eta zer itxusia erabakitzen hasten bagara, fragmentatzen ari gara, kategoriak ezarritz». Baina egunero, etxean, jatekxan, sukaldean... aurki daiteke edertasuna, eta hori isladatu nahi izan du Koldobika Jauregik: «Askotan, teknologia berriek artetik hurruntzen baidakaitzute; gauza sinpleak eginez, sinpletasun horren bidez gauzak sortzea izan da nire helburua».

Kale erakusketa

Haitza arte bihurtzea, naturak eman diona erabiltzea, zerbait adierazteko. Tolosarren museo kalean topatu dute, jendearen eguneroko bizitzan zerutik lurreratu izan baltz bezala. Iru-diz eta ikurrez betetako harri izugarriak aurkitu dituzte herritarrek, haurren eta helduen irudimena martxan jarri duten hitz magikoak.

Koldobika Jauregik lortu du tolosaldeko artearen munduan murgiltzea eta hain urrutiko zegoen arte mundua kaleetako zati bihurtzea. Denon ahotan egon den hitza «niri hau gustatzen zait edo zer da hau» esanarazi duena.

750. urteurreneko ospakizunen helburuetako bat zen etorkizunerako legatu bat uztea, eta legatu horren parte izango da Koldobika Jauregiren eskultura.

ditu. Hauek, Iturriotzeko base-rri batetik hartu zituen erreferentzia moduan. Hala, obra honen eskultoreak isladatu nahi duen gauzetako bat da, inguruko herriek ere sortzen dutela Tolosa. Larunbateroko azokan ikus daiteke hori; Nafarroako zubitik sartzeko ziren eta Tolosako udaletxea aurrez aurre izaten zuten beste herrietakoek. Gurutzeak ere horren adierazgarri dira neurri batean, mundu herriko hori Tolosara bertaratzen baitute. Dena den, elementu hauek, beste hainbat gauza ere adierazi nahi dituzte. ◀

GUTUN@K ▶

Bedouret eta Lizartza

Sebastian Bedouret frantziar kazetariaren tortura testigantza irakurtzeko aukera izan nuen atzo (urtarrilaren 6an atxilotu zuten, Hernanin, ETaren *Zutabe* bat zeukala egotzita). Testigantza dena da beldurgarria. Hona hemen Bedouretrek kontatutako pusketa bat: «Guardia zibil batek esan zidan hurrena berriro Lizartzan ikusten banau, hil egingo nauela. Ni Lizartzan behin baino ez naiz izan».

Zeinek dio aske garena?

ENEKOITZ ESNAOLA ▶

ALEGIA ▶

Zazpie Pasa Txapelketan parte-hartzea

Bigarren urtez Zazpie Pasa Pilota Txapelketa antolatu du herriko gazte talde batek. Bertan izena eman nahi duenak ohiko tabernetan eta Alegiko Gaztetxean topatuko ditu zerrondak, eta bihar izango dute horretarako azken eguna. Parte hartuko duten bikoteekin hasierako bilera egiteko asmoa dute antolatzaileek hurrengo asteartean, hilaren 23an, Kultur Etxean 19:30ean. Bilera horretan talde ezberdinen arteko zozketa egingo dute, bikote parte-hartzaileei arautegia banatuko diete eta izen-ematea ordaintzeko aukera ere izango dute. Hain zuzen ere, 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak Zazpie Pasa Txapelketan parte hartzeko.

ALEGIA ▶

Idiazabalen aurka, gaur Intxurreko neskek

Ondorengo partidak jokatu dituzte Intxurrekoek gaur eta bihar: Neskek 20:30ean dute partida gaur, Idiazabal Garabi-ren aurka Idiazabalen bertan; lurraldeko 2. mailan Intxurrek Amarozen aurka jokatu du bihar, Alegian, 15:45ean; jubenilen mailan, Intxurreko gaztetxoek deskantsua izango dute asteburu honetan; eta kadeteen mailan, Zumaiaren aurka izango dute partida Intxurrekoek, Zumaiaren, bihar, 15:00etan.

SAN SEBASTIAN EGUNA ▶

San Sebastian Eguna ospatuko dute gaur eta bihar eskualdean

Berastegin, Leaburun eta Orendainen elizkizunak, hamaiketakoak, bazkariak eta dantza saioak izango dira



Pasa den urtean ere, kalejiran joan ziren herritarrek ermitaraino. NEREA URBIZO

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero moduan, urteko lehen hilabetearekin batera, San Sebastian Eguna Ospatzeko garaia iritsi da eskualdeko hainbat herritan; Alegialdean eta Ibaraldean jarraitzen dute tradizio honekin, Orendainen, Berastegin eta Leaburun, hain zu-

zen. Izan ere, hiru herri horietan, izen bera daraman ermitan egin ohi dituzte San Sebastian Eguneko ospakizunak. Bi alditan martir izandako santuaren eguna da biharkoa. Halaber, San Sebastian, epidemien aurkako santu bezala ere ezagutzen da. Kontuak kontu, era berezian, jai giroan ospatu

ohi dute eguna, noski elizkizunak hutsik egin gabe. Berastegin, esaterako, izen bera daraman eta mendixkaren tontorrean kokaturik dagoen ermitan izan ohi dira ospakizunak, baina aurtun egun bat beranduago, hau da, etzi, egingo dute sansebastianeko meza, eta elizan izango da.

AZPIEGITURAK ▶

Ibiurko urtegia eta presa bisitatu ditu Cristina Narbona Espainiako Ingurumen ministroak

Eskualdean, 60.000 herritar hornituko dituela adierazi zuen; 2008an amaituko dituzte obrak

ERREDAKZIOA

Ibiurko urtegiako obrak bisitatu zituen atzo Cristina Narbona Espainiako Ingurumen ministroak. 2008 urte amaieran, behin obrak amaituta, Gipuzkoan Oria ibaiko arroan dauden 12 herrietako ur-horniketako hobetzea espero dutela adierazi dute; «presak kalitateko ura ziurtatuko die Tolosaldeko 60.000 biztanle bakoitzari eta zentzuzko emari ekologikoko bat bermatuko du», adierazi zuen Narbonak.

Obra honek 31,7 milioi euroko aurrekontua izan du eta Espainiako Ingurumen Ministerioi AGUA programaren baitakoa da. Hala, Cristina Narbonak gogorarazi zuen proiektua Ingurumen Ministerioa ari dela burutzen Confederacion Hidrografica del Norte-rekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurilaritzarekin elkarlanean. Ibiurko presak eta urtegiak Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Toloza, Ibarra, Anoeta, Irura, Villabona, Asteasu, Zizurkil eta

Aduna hornituko ditu, eskualdeko herriei dagokionez. Denberrak, 60.000 lagun baino gehiagorentzat ur-horniketako delak esan nahiko du horrek. Ibiurko presaren obrarekin FCC Construcción lantegia hasi zen 2003ko abenduan. Narbona ministroak obrak eten zireneko unea ere izan zuen hizpide; «kokagunearengatik eta material arazoak zirela-eta lanak eten eta geldiarazi behar izan ziren; presa hau eraikitzeko beharrezkoa den lur kopurua eta Gipuzkoako

harrobietan beharrezko kopurua lortzeko zailtasunengatik, Iruñatik gertu dagoen harrobi batera jo genuen; horregatik proiektuak aldaketak jasan zuten iragan maiatzean». Ministroaren aburuz, «obrak espero bezala ari dira burutzen», eta 2008 urtea amaitzerako bukatuta egotea aurreikusten dute. Esaterako, jadanik amaitu dute Baliarrainera doan bidea, eta ondorioz, presaren ezker estriboen zimentatzearen hondeaketarekin jarraitu ahal izan dute langileek.

EGITARRAUA ▶

San Sebastian Eguna harira, hainbat ekitaldi izango dira Berastegin, Leaburun eta Orendainen, bihar eta etzi.

BERASTEGI

Etzi. 12:00etan izango da meza berezia San Sebastian ospatuaz.

LEABURU

Bihar. San Sebastian ermitan izango da meza 17:30ean. Ondoren, herriko dantza herrikoiak eskainiko dituzte. Dantza saioaren ostean, Udalak askaria jarriko du herritar guzteei eskainia Zazpi Bide elkartearen.

ORENDAIN

Bihar. 10:45ean, herriko plazatik abiatuta, txistulariek alaituta kalejira egingo dute ermitaraino; 11:00etan meza izango da San Sebastian ermitan ermitan; ondoren, udaletxean hamaiketakoak; 14:00etan, Eltxoak elkartearen bazkaria egingo dute.

Leaburun, bestalde, arratsaldean izango dira ospakizunak. San Sebastian ermitan meza egingo dute arratsaldean, eta ondoren dantzarien saioa izango da. Udalak jarrita, askaria egingo dute dantza saioaren ostean Zazpi Bide elkartearen. Azkenik, Orendainen, kalejiran joango dira ermitaraino eta mezaren ostean, hamaiketakoak eta bazkaria egingo dute. Ibilgailua herriari utzi eta kalejiran joatea gomendatu diete Udalak herritarrei.

SAGARDOTEGIAK ▶

Bekatuaren fruitutik sortutakoa

Sagardoa sagar uztaeren arabera izaten omen da; aurten, adituaren ustez, eskualdeetako sagardotegietako upeletan dagoena «ona» egongo da



Sagardoa egin aurretik sagarra ongi baltu behar da: horretarako tresnak badira ere, etxe baltzetan lanabes zaharrekin egiten dute. OSTRALAN

NEREA URIBIZU

Sagardoa edateko garaia berriro ez dago, baina bai sagardoa egiteko. Sagardotegietako garaia ireki egin berri dute, eta eskualdeko sagardotegietan edan dituzte zuku berezia nolako izango den azaldu dute hainbatek. Denok argi utzen dute sagardoen kalitatea sagarrazan kalitatearen arabera izango dela argi dute ere, aurten sagarra onen izan dela: onena dela esatearekin, baina, esagutzen ez duenak ez daki zer esan nahi den: «kolore polita eta kalitate oneko» da sagarra, «nahiz eta beranduago iritsi egindako udazkena lehortarengatik», sagardotegietan esan bezala.

Sagardo on bat zein den galdetzen. Leitzako Erreka sagardotegi jabearen aburuz, «kolore ona daukana eta ezartirik ongi pasatzen dena» da sagardo ona, nahiz eta ondoren aitorri ere, ardora nabago» deula. Nafarroako sagardotegi honetara Gipuzkoako sagarra daramate. Astigarra-

INAXIO SARASOLA ▶ SAGARDOGILEA

«Astean zehar datorrena adituagoa da; sagardoa edatera dator»

Inaxio Sarasola Sarasola sagardotegi jabea da: sagardotegiak 40 urte inguru ditu jada, eta esateko arrazoiak dituen, aurtengo gehiengoak bezala, uzta ona izatearekin, sagardoa edateko aukera izango da aurten. **Berria ala zutik?** Bi erataria. Nahiz duenak zutik eta nahi duenak eserita. Nor-malean sagardotegietara datorrena nekaztuta egoten da... **Zanbat litro egin dituzte aurten?**

200.000 litro, gutxi. Pentasa, Euskal Herrian 12 bat milioi egin dira. Asteasu eta Alitzako sagarra %70a da, eta beste gutxi kanpotik ekarritakoa. **Sagardoa nortzen duen jendea da al dago?** Bai. Normalean, asteburutan etorzen den jendea ondo pasatzen dator, eta ateratako gutxi edaten du: leodiritan dator gehiena. Astean zehar datorrena adituagoa da eta berez sagardoa edan nahi duena da: horretara dator.

Sagardo on bat edaten ari gurea onen zer dago? Bi gauza hartu behar dira kontuan: kolorea eta zaporea. Kolorearen aldetik, ez lina eta ez argia ere, lasto kolorekoa edo, izan behariko luke. Bereziki, fruta zaporea ere igeri behar zaio, txinparta pixka bat ere bai. Baso bat edan ondoren, bestea eskatzen dizuna, hort sagardo ona da, segurua. **Sagardoa ongi zaindu du?** Ez dute uste biltzarramonek edo bestetako sagardoen ondorengoek eragiten dutel! Sagardo hutsarekin ez da hurrengo eguean gutxi pasatzen, ez dauka alkohol gehiegirik, eta freskagarri bezala ere ona da. Gero beste zerbaitekin edaten baduza, nabesten hasita orduan datoz komerrik.



N. URIBIZU

Sagardoa osasuntza dela esan daito? Hala esaten dute askok. Giltzurrunetako oso ona osen da, bere neurrian noski. Sagarra eginda dago, beraz, ezin da oso txarra izan. **Aurragoak lagunduko dute prozesuan ez?**

Bai, asko laguntzen dute. Altzairu herdoigaitzez egindako upelek oso ondo mantentzen dute temperatura: bederatzigradutik jaitsean ez dio uzten, eta berdin egiten du hamairu gradutik joptzen bada. Sagarra txikituko dolare berriak, garbitasuna bera... Askok aldatu da dena. **Itza eldibatzetik onena denu?** Ez, guk ez. Sagarra hartu eta prozesu gutxi egiteko ez dio eragiten klimak. Gehien nabaritu dena sagardoa egiteko momentua izan da: alezia, prozesu errazte egin da. ◀

TOLARE-SAGARDOGEGIA
Jatorrizko Sagardoa
SARASOLA
Larunbata eta igandetan eguerdian irekita
Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
639 77 84 20

Erreka auzoa
Tel.: 943 51 06 25
LEITZA (NAFARROA)
(Auzoko Leitzako norabideko izenarekin)

SAGARDOGEGIAK ▶

Eskualdeetan bederatz sagardotegi dauka: zortzi Tolosaldean eta bat Leitzaldean.

TOLOSALDEAN

- Abaltzietan.** Zalbidie, 943 65 21 76.
- Adunan.** Aburuza, 943 69 24 52, eta Zabila, 943 69 07 74.
- Asteasu.** Sarasola, 943 69 02 83 edo 943 65 26 22.
- Ikaztegiak.** Begiristain, 943 65 28 37.
- Irujan.** Erreka, 943 69 14 32.
- Leaburun.** Olazu, 943 67 00 44.
- Tolosan.** Eguzkitza, 943 67 26 13; Ikaegi, 943 65 29 64; Usabal, 943 67 43 16.
- Zizurkil.** Olenitza, 943 69 34 44.

LEITZALDEAN





- Leitzan.** Erreka, 948 51 06 25.

gatik, zehazki. «Batzuk, hala ere, sagastak ere badituzten». «Azkenaldian sagardotegiek badiudi ospe handiagoa dute-la, baina gure artean urte oso daramatzate, eta ospe berdintsuarekin gainera. Eguzkitza sagardotegiok zioenez, «azkenaldian, alkoholemia kontrolakin nabaritu da iguera ere: jendea mugitzea beldur da orain, isuneta eta arriskuen beldur».

Sagardoaren inguruan

Sagardoa gero eta ezagunagoa da munduan, baina Euskal Herrian ez da bakarririk egiten: sagardotegietara joaten den jendeak ordea, haurtara joetako 4 hilabeteko epea izaten dute, nahiz eta urte osoan zehar sagardoa edateko aukera izan: «Jendeak urte osoan zeharkeko zerbaite ez delako biltzitzen dituz sagardotegiak», Leitzako Errekaletan ustea. Beste kuzpegi bat dauka Eguzkitzaok: «Sagardotegiak sozializazioa auzerak ematen dituzte, jende ugari biltzen da, zutik egiten zara eta giroa egoten da. Jate-berze batean sagardoa egon daito, baina ez giro hori parloarekin eta ondokoarekin hitz egiten duzu bakarrik».

Upele handietan dagoen sagardoa botila txikietan eraman dezakegu etxera, eta lagun artean edan ere, sagardotegien antzera. Faltsuak dena, ordea, txox hitzak mahalingurukoengan duen induraz. **Upele handietan dagoen sagardoa botila txikietan eraman dezakegu etxera, eta lagun artean edan ere, sagardotegien antzera. Faltsuak dena, ordea, txox hitzak mahalingurukoengan duen induraz.**



Sagardoa, aspaldiko kontua

Tolosako Eguzkitza sagardotegiak biltzaria bat topa daito: aspaldian bertan sagardoa egiten zuten makina zaharrak. Rufino Zipitriak eta semeak daramate Eguzkitza sagardotegia. Aitzak sagardoa egiten omen zuten ere, eta bertan dituzte tresna zaharrak ikusgai. Lehengo urtera arte dolare zaharra erabiltzen zuten sagardoa egiteko: orain berria erabiltzen dute.

Bertara, baskaltzera edo afaltzara joaten direnek ikus ditzakete tresna hauek. ◀



Sagardoa egiteko tresna zaharretako batzuk. N. URIBIZU



Sagardoaren mesederako. Sagardoa egurrezko eta metaliko upeletan gordetzen dute: altzairu herdoigaitzez egindako upelel esker sagardoa fresko mantentzen da, eta beti temperatura berdintsuan egotez arduratzen da. Horrez gain, garbitasunaren bermea da. N. URIBIZU

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ISASTEGI
sagardotegia
Larunbat eguerdian irekita
Ikaegi Sagardotegia, S.L.
Alkalo-Txiki auzoa, 15 ••••• TOKOSA
Tel.: 943 65 29 64

OTAZU
Urtarraren 26an irekiko dugu
LEIZARU
20491 • Gipuzkoa
Tel./faxa:
943 670 044

BEGIRISTAIN
Tolosako sagardotegia
Tel.: 943 65 28 37 / 687 36 57 43 • Hurreti berria 20267 Ikaztegiak

EGUZKITZA
Tel.: 943 67 26 13 ••••• TOKOSA
Urtarraren 26an irekiko dugu

MAIDER MENDIZABAL ▶ PILOTARIA ETA GIPUZKOAKO FEDERAZIOKO TEKNIKARIA

«Normal jokatuta, irabazi beharreko partida da»

Maidier Mendizabal anoetarrak Arrondo bikotearekin bihar jokatu du I. Emakumea Pilotari Txapelketako finalerdia

IMANOL GARCIA

Maidier Mendizabal anoetarrak I. Emakumea Pilotari Txapelketaren finalerdia jokatzear gain, lehiaketaren koordinatzailea da. Gipuzkoako Pilota Federazioan teknikari bezala egiten du lan. Txapelketaren azken jardunaldia ez zuen jokatu lesio batengatik. Asteasuko finalerdia irabaztea espero du.

Jokatuko prest zaude?

Espero baietz, hobeto nago eta. Lepoan izan nuen lesioa, kontraktura bat. Pixka bat arraroa izan zen, entrenamendu baten bukaeran izan baitzen. Lepoarekin keinu bat egin ondoren, tortikolia izango banu bezala gelditu nintzen.

Azken jardunaldian finalerdiko aurkariak kontra jokatu zuten zure ordezkoak eta Arrondok. 30-19 galdu zenuen. Biharkoan zer?

Normal jokatzeko moduan bagaude guk irabazi beharreko partida da. Aste honetan ezin izan dut entrenatu eta ikusi behar harko dugu larunbatean [bihar] nola gauden.

Nola izan da ligakka, pilotariaren ikuspuntutik?

Azken urtetakoekin konparatuta orekatuagoak zeuden bikoteak. Beste pilotari batekin jokatzekoan gauzak aldatu egiten dira. Eskarmentu handiagoa dugunok bikoteari zerbait erakusteko aukera izan dugu. Orkorrean jendea gus-



MADDI SOROA

tura aritu da. Giro oso ona izan da, pilotari guztiak jardunaldi bakoitzean elkartu egiten baidin.

Eta antolatzaile ikuspegitik?

Orain arte klubetako arteko txapelketa zen eta antolakuntza mailan datak jartzea besterik ez zen egin behar. Aurtengoa beste sistema bat izan da. Bikote orekatuak osatu, frontoiak bilatu jardunaldiak egiteko, informazio zabaldu, jarraipena egin... Lana handiagoa izan da.

Emakumea Pilotaria proiektuaren koordinatzailea zara. Zertan datza?

Hiru arlo daude. Eskola kirolen 10-16 urte bitarteko neskekin sustapen jarduerak egin ditugu. Gero pilota eskolak antolatu ditugu neska horiek parte hartu ahal izateko eta eskolarteko txapelketa antolatu ere. Beste arloa partaidetza kirola da. Helburua pilota kirol bezala sustatzea da 25 urte baino gehiagoko emakumeengan. Tolosan eta Azepeitan ikastaroak daude martxan. Hirugarren arloa emakume

Finalerdiak Asteasun

I. Emakume Pilotaria Txapelketakoaz gain, kadete mailako Gipuzkoako Txapelketa-Kutxa Sariaren finalerdiak jokatu dituzte bihar Asteasuko frontoian. 16:15ean hasita, kadete mailakoek jokatu dute lehenengo. Hernani 4 taldea Hernani 3ren aurka (Hernani 4n Maitane Aburuza zizurkildarrak jokatzen du) eta Hernani 1 Hernani 2ren aurka izango dira partidak. Ondoren, nagusien, Emakumea Pilotari Txapelketako txanda izango da. Maidier Mendizabal anoetarra eta Eluska Arrondo, Miran Zabala eta Edurne Argaienen aurka. ◀

pilotari federatuena da. Hor sortu da, esaterako, I. Emakume Pilotari Txapelketa egitearena.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ KULTURA

I. Kultur Astea Jesusen Bihotza ikastolan

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza ikastolak datorren asterako I. Kultur Astea antolatu du. Hilaren 22an, astelehenean, hasiko dira ekitaldiak. Kirolari lotutakoak izango dira lehen egun horretakoak, DBHkoei zuzendutakoak. 15:00etan hasita, esku pilota, pala, ginkana saioak eta halterofilia erakustaldia izango dituzte Errebote plazan. Eguraldi txarra izanez gero, futbola eta saskibalo saioak eta halterofilia erakustaldia izango dituzte Olaederra kiroldegian.

Hurrengo egunean, hilaren 23an, haur jaialdia egingo da. LHko ikasleek euren emanaldia emango dute Gurea aretoan, 17:15ean. Asteazkenean, hilaren 24an, hitzaldi-etzabai da gurasoei zuzenduta, *Nutrizioa eta arreta arazoak haurtzaroan* gaia jorratuko du Bitto Ormaetxea pediatrik Gureako erakusketaretoan, 15:30ean.

Hilaren 25ean, ostegunean, txikienezko ekitaldia antolatu dute. Patxin eta Potxin pailazok emanaldia eskainiko dute, 15:30ean, Ikastolako ganbaran. HH eta LHko 1. zikloko ikasleentzat izango da ikuskizuna. Hilaren 26an, ostirala, Erretereriako Landarbaso

abesbatzaren emanaldia entzun ahal izango da Gurea aretoan, 20:30ean.

Bukatzeko, ibilaldi neurtua

Kultur Asteari amaiera emateko, hilaren 28an, igandea, I. Ibilaldi Neurtua antolatu dute ikastolakoek. Bi ibilbide izango dituzte: 09:30ean ibilbide luzeari emango zaio hasiera eta 10:30ean ibilbide laburrari. Irteera eta amaiera Txermingo ikastolan izango dira.

Taldeak osatzerakoan, HH eta LH mailatan hiru ikasle eta gutxienez heldu batez osatuko dituzte. DBHn hiru ikasleko taldeak osatuko dituzte eta nahi izanez gero heldurik gabe osa ditzakete taldeak. Parte-hartzaileen izenak tutoreei eman behar zaizkie, hilaren 24a baino lehen. Talde bakoitzari txartel bana emango zaio ibilbidearen hasieran. Bi ibilbide daude eta bakoitza seinalizatua egongo da. Antolakuntzatik eskatzen dute errespetatzeko seinaleak, semaforoak, zebra bideak, ingurunea eta abar. Ibilaldia amaitutakoan, diplomak banatu ariko dira. HH eta LHko 1. zikloko ikasleentzat izango da ikuskizuna. Hilaren 26an, ostirala, Erretereriako Landarbaso

ANOETA ▶ KULTURA

Milkshake taldearen kontzertua gaur gauean

ERREDAKZIOA

Milkshake talde ordiziarrak kontzertu berri bat emango du gaur gauerdian Anoetako Saloon Radikal Biker aretoan. Taldeak abesti berriak sortzen ari den arren kontzertuak

ere ematen ditu, noizbehinka bada ere. Sarrera dohainik izango da.

Kontzertua Arditlatza Tour Xpression!!! egitasmoaren baitan kokatzen da. Xpression!!! Kultur Plataformakultzatuta.

iragarki laburrak ▶

LANA


Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna baterako. 07:00etatik 13:30ak arte. Igandeak jai. 650 48 79 34.

Tabernaria. Pertsona bat behar da Tolosako taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira. **Gidaria.** Egurretan ibiltzeko gidaria behar da. 626 71 46 96.

Banatazailea. Baserriko produktuak banatzeko banatzaile bat behar da. 943 68 22 14.

SALGAI

Autoa. BMW M3 autoa salgai. Tolosako taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.



Salgai (Tolosa)

lurrarekin auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. Loratgia. Garaje itxia. **Salgai (Anoeta)** Pisu polita 78m2-koa. 3 logela, egongela, oso sukaldale handia, despentsa, bainugela. Terraza ederra.

Salgai (Tolosa)

50m2. Atiko ederra estreinatzeko guzti eraberritu ostean. **Salgai (Etxarri-Aranatz)** Eraikuntza berriko pisua estreinatzeko. Trastelekua eta garaje itxia.

Salgai (Tolosa)

Korreo kalean 103m2-ko lokal egokitu.

Alokatzeko (Tolosa) San Frantziskoren 56m2ko lokal argitsua.

Alokatzeko (Tolosa)

Kale Nagusian 106m2-ko lokal. Udaletxetik oso gertu.

943 69 71 96 • 675 705 268

Korreo Kalea 50

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)			
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Datu-Baseak administratzea (ACCESS)	80	2007-01-22	18 - 21
Fresatzeko makina konbentzionalako mekanizazioa	80	2007-01-22	18 - 21
Automatismo programatu aurreratuak (SIEMENS S-7)	40	2007-01-22	18 - 21
CNC tornuaren programazioa	40	2007-01-29	18 - 21
Beste posizio batzuetako MIG/MAG soldadura	50	2007-02-26	18 - 21
Teknologia PNEUMATIKOA	30	2007-02-26	18 - 21
Galdaragintza eta egituren planoak interpretatzea	60	2007-02-26	18 - 21
BESTE IKASTAROAK WEB ORRIAN			
Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSAN idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com			

LEITZA ▶ ZINEMA

Raul de la Fuentesek zuzendutako 'Nomadak Tx' dokumentala gaur, zineman

Txalaparta abiapuntutzat hartuz, munduko kultura nomada batzuen ahotsa entzutea du helburu, eta harreman horretan oinarritutako espazio bat sortzea



Nomadak Tx filmeko irudi bat, Saharan. HITZA

NAIARA GARZIA

Gaur Raul de la Fuentesek zuzendutako filma izanen da ikusgai herriko zineman, eta ohikoa den bezala, igandean berri eskainiko dute.

Nomadak Tx dokumental eta road movie baten erdibideko lana da. Txalaparta abiapuntutzat hartuz eta Igor Otxoa eta Harkaitz Martinez de San Vicenterekin nahia jarraituz, Euskal Herriko perkusio instrumentu hau

topagune bihurtzen dute, ez soilik pertsonen arteko topagune, hagitz ezberdinak diren kulturen artekoan baizik.

Haien desio hori betetzeko asmoz, protagonistak munduko hainbat lekutara bidaiatzen

dute, gida turistikoetatik hagitz urrun dauden txokoetara, soinu ezberdinak topatzeko asmoz. Haien bidaian Indiako adivasi-ekin egongo dira, Laponiako sarriekin, Mongoleko Estepako bizilagunekin eta herri sahararrarekin.

Munduan zehar

Horretarako garraio ezberdinak erabiliko dituzte protagonistak: zaldia Mongolian, tren Indian, eskiak Laponian... Argeliako desertua ere zeharkatuko dute bilatzen dituzten ahots eta pertsoniak topatzeko, hau da, haien arbasoen hizkuntzari heldzen dioten herriak, nomada izatea aldarrikatzen dutenak.

Homogeneotasunak mundua menderatzen duen heinean, honen kontra doan proiektua da hau, beraien ahotsa galdu nahi ez duten horiek sortutako espazioa. «Gurea ez denarekiko errespetua eta gurea denarekiko harrotasun umila», hitz hauek lan honen filosofia laburbiltzen dute.

Bidaiaren inguruko oharrak

Laponia, Sahara, India eta Mongolia dira proiektu honen protagonistak.

Laponiako sarri herria ezagutzeko, elur-oreinen artzaiak direnak, eskiekin zeharkaldi bat egin zuten, Kungslegen zeharkatuz, 30 gradu azpiko tenperaturarekin. Honela, Kautokeinora iritsi ziren, hau da, La-

poniako sami gehien biltzen dituen herrira.

Sahara, berriz, herri nomada aunitz bezalako espazioa da: tuareg-ak, berebereak, sahararrak eta nawjak, besteak beste. Oreak TX taldeak Argeliako desertua zeharkatu zuen hauengana iristeko.

Indiako bidaia, filmeko tal-

deak dioen bezala, «topikoe-kin hausteko aitzaki ederra izan zen». Ia hilabetez taldea Gujerat estatuko zonalari isolatuenean egon zen eta gero, bere hiriburuan, Ahmedabad-en.

Azkenik, proiektu hau burutu zuten kideak Mongolian izan ziren. Bertan aspalditik

zaldia da garraiorik ohikoena, Mongoliako esaera zahar bategi dioen bezala: «Zaldirik gabeko gizona, hegalki gabeko txoria da». Zaldia bertakoei nomada izaten laguntzen dien animalia da, eta txalapartarekiko lotura berezi bat du, instrumentu honek zaldien hotsa ekartzeko baita gogora. ◀

LEITZA ▶

Mokaiko mendi taldeak antolatuta, mendi irteera

Urtarrilaren 28an egingen da eta Urto, Arano eta Arranbide zeharkatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Elgoibarko Mokaiko mendi elkarteak Leitzaldean ibilbide bat egiteko asmoa du urtarrilaren 28an. Urto-Aranobide izango dira ibilbideko ardatz nagusiak.

Urtoko portutik abiatuko dira. Lehenengo pausoak Leitzaran ibaia lagun dutela, egingo dituzte. Plazaolaraino. Handik gora jarraitu eta mendi gaina hartu ondoren, ia egun guztian gainez gain joango dira ikuste ederrak izango dituztelarik: ezker aldean, Leitzaran bailara eta Aralar Eskuinaldean, berriz, Urumea bailara eta Iparraldeko mendiak. Eta parean, Donostia, Pasaialdea eta Aia-ko harriak. Urepel eta Mandoegi gainen ondoren, itsasoa ikusten den Nafarroako herri bakarrera iritsiko dira: Aranora. Handik behera jo eta Arranbidera iritsiko dira. Mendi irteera Urumea ibaiaren ondoan bukatuko dute.

Ibilbideak 18 kilometrotako luzeera izanen du, eta 5, 5 orduko iraupena. Igoerari dagokionez, 900 metrotako aldea izanen du eta 1.200 metrotakoa, behera.

Elgoibarko Plaza Handitik abiatuko dira urtarrilaren 28an, 08:00etan. Izen-ematea astelehen eta ostegunetan egin daiteke, 19:00etatik 20:30era bitarte, ondorengo telefono zenbakian: 943 74 02 97, edota Mokaiko Mendi Taldeak duen egoitzan bertan: Errosario kalea, 17, Elgoibar.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztielako prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

hilberria ▶



Rufino Arruti Orbegozo

Baratzeko aulkitik begira lurrali lehengusuen haziak estimatzen hau hi gudan jorratu dituk balore ugari joan haizen Rufino eder, maita, handi gaur lurrak begiratzen dio aulkari

Arruti Orbegozo sendiko lehengusuak

oharra ▶ Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Orioko San Nikolas parroikia elizan, gorpua bertan dela egingo da hileta elizkizuna. Aldez aurretik, mila esker.

ORIO, 2007ko urtarrilaren 19a



hilberria ▶



Justa Galarraga Senperena

(Ignacio Inurriraren alarguna)

Nahiz eta agur esan behar beti barren-barrenean gurekin izango zara.

Zure bilobak: Inigo eta Alazne, Joseba, Unai eta Ana, Eneko eta Miriam, Eider, Nagore eta Iraitz; birlobak: Urko eta Aner.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela, GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Irurako SAN MIGUEL parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

IRURA, 2007ko urtarrilaren 19an



AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. 16:30etik aurrera, Intxurre elkartearen, gazteboen bertso eskolarik ekiteko bilera egingo dute. Zazpi astoren gainean bertso eskola eta guraso elkartearen laguntza.
Berrobi. Eskularen ikastaroa astelehenetan izango da 10:00etatik 12:00etara, otsailaren 5ean hasi eta abenduaren 10a arte. Ikastaroaren prezioa, berriz, 103 eurokoa izango da. Izen-ematea 943 68 32 94 zenbakian egin behar da hilaren 23a baino lehen.
Ibarra. Euskara Zerbitzuak 2007ko egutegiari argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu ditzan. Interesatuak udalabean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete 09:00etatik 13:00etara.
Villabona. Aizkardi mendi elkarteak Artzamendira (Lapurdi) antolatatu du irteerako igande honetarako. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonon.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Emakumeen aurkako indarkeriarik ez horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburun otsailaren 24ra arte.
Tolosa. Maria Jose Rekalderen erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era joan ahal izango da ikustera.
Alegia. Isabel Mujikaren margolanak jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Goizueta. Apeztebua, L.M. Kale Nagusia, 64. 112. (Leitza eta Aresoko biztanleentzat).

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Asteko onena.
21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Musikarako garaia

ANOETA ▶ Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 25 urte bete ditu eta 'Tempo di Martxa' autobus didaktikoa antolatatu du haurrei musika klasikoak hurbiltzeko



Loatzo musika eskolako ikasleak azalpenak entzuten, atzo Anoetan, autobusaren barruan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 25 urte bete berri ditu. Urtemuga dela eta, autobus didaktiko bat prestatu dute 10 eta 12 urte bitarteko haurrei musika klasikoak eta orkestra bera hurbiltzeko. *Tempo di Martxa* izena du autobusak eta atzo Anoetan egon zen. Hego Euskal Herriko ia herri guztiatar joateko asmoa dute antolatzaileek eta beraz, eskualdeko beste hainbat lekue-tara ere joango da. Loatzo musika eskolako haurrek izan zuten atzo Anoetan autobus barrura sartzeko aukera. Bertan, ordenadore ugari-z gain, orkestra batean aurki daitezkeen instrumentu guztiak zeuden. Dinamizatzaileek instrumentuen erreposoa egin ondoren, orkestrari buruzko zenbait datu eman zituen, hala nola, 25 urte hauetan 1.700 kontzertu eman dituztela, 7.000 bazkide direla, 33 diska grabatu eta egun 110 musikarik hartzen dutela parte «Europako orkestrarik garrantzitsuenetakoan». Ordenagailuko programa informatiko baten bitartez informazio gehiago jaso ahal izan zuten eta soinu-jokoetan jolastu ahal izan zuten, musikara beste modu batera hurbilduz.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Irati (Tolosa). 24 mnxu handi, Tolosaldeko zure lagunek. Etenduen hau asko espero!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza **TOLOSAN**
Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza **LEITZAN**
Udaletzeko bulegoa

hitza agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...